



BERGARAKO UDALEAN AURRETIAZKO JAKINARAZPENEN OBRETARAKO UDAL LIZENTZIA LORTZEKO PROZEDURA LABURTU AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2020/10/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021/01/ 25ean

BERGARAKO UDALEAN AURRETIAZKO JAKINARAZPENENKO OBRETARAKO UDAL LIZENTZIA LORTZEKO PROZEDURA LABURTU AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

SARRERA

Udalaren asmoa da Administrazioako prozesuak erraztea, burokraziak kentzea eta izapideak sinplifikatzea, beti ere indarrean dagoen legedia betetzeko bermearekin.

Udalak komenigarritzat jotzen du proiektu tekniko bat aurkeztea eskatzen ez duten garrantzi txikiko obren zati baten eskaera eta izapidetzea arautzea, dagokion udal-lizentzia ahalik eta modu errazenean lortzeko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen —Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan— 207. artikuluan eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ordenantzan jasotzen dira udal-lizentzia eskatzera derrigorputa dauden obrak

Gauzak horrela, jarraian zehazten diren artikuluetan jasotzen dira aurretiazko jakinarazpena behar duten obren definizioa eta jarraitu beharreko izapideak.

1.- Definizioa

Aurretiazko komunikazioa behar duten obratzat hartuko dira etxebizitzetan egiten diren eta proiektu teknikoa behar ez duten jarraian zehazten diren etxe barruko obra xumeak:

- Sukaldea berriztu.
- Komuna berriztu.
- Zorua aldatu.
- Barruko arotzeria aldatu.
- Kalefakzioa ezarri edo aldatu.
- Argiteriako instalazioa berriztu.

Bestalde, ez dira aurretiazko jakinarazpenaren mende dauden obratzat hartuko proiektu teknikoa behar dutenak, azaroaren 5eko 38/1999 Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta ezta aipatutako proiektu teknikoa behar ez duten arren, artikulua honetan erlazionatuta ez daudenak (leihen-aldaketak, eraikineko elementu komunitario obrak –fatxadak, teilatua, ataria, eskailera... –, lokal eta pabiloi industrialetan egindako obrak, eta abar).

2.- Izapidea

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orria bete beharko du eta Udaleko Erregistro Orokorrean (edo gaitutako baliabideen bidez: telematikoa, posta...) aurkeztu beharko du eskaera, gremio guztien aurrekontuekin batera. Ondoren, Udaleko Kontu-hartzailetzan ordaindu beharko du Ordenantzaren arabera dagozkion tasa eta zerga, eskaera formalki egiten duenetik kontatzen hasita gehienez 10 eguneko epean.

Obra baimena emanda duela ulertuko da eskaera-orrian zehazten diren baldintzekin, eskatzaileak Udaleko tasa eta zerga ordaindu eta, gehienez ere bost laneguneko epean Udalak kontrakorik adierazten ez badu.

Baina udal-tasa eta -zerga ordainduko ez baditu, bere eskaera artxibatu egingo da, atzera egin duela ulertuta.

3.- Eskaera-orria

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orrian aurkeztu beharko du aurretiazko komunikazioa behar duen obra egiteko baimen-eskaera.

Eskatzaileak eskaera-orrian zehaztutako datu guztiak azaldu beharko ditu bere eskaeran.

4.- Beste xedapen batzuk

- a.- Udaleko teknikariek sarrera librea izango dute obretara, hauek egiten ari diren bitartean.
- b.- Lizentzia hau eskatu eta lortuta ere, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren bestelako baimenak ere eskuratu beharko dira.
- c.- Alkateak ahalmena izango du ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzerakoan behar beste agindu edo jarraibide emateko.

5.- Xedapen indargabetzailea

Ordenantza honen onarpenarekin indargabetuta gelditzen da "Bergarako Udalean obra txikien udal-baimena lortzeko prozedura laburtua eta azkarra arautzen duen Ordenantza". Indargabetutako ordenantza hori Udalbatzaren Osoko Bilkuran onartu zen 2014ko azaroaren 24an eta horren behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 28an.